

108/2017 FORU AGINDUA, irailaren 13koa, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak emana, foru dekretu baten proiektua egiteko prozedurari hasiera ematea erabakitzen duena. Foru dekretu horrek Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek abalak eta maileguak emateko beharrezkoa den Nafarroako Gobernuaren baimena lortzeko prozedura arautuko du. (GP 2017/123)

Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek abalak eta maileguak emateko beharrezkoa den Nafarroako Gobernuaren baimena lortzeko prozedura, gaur egun, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 74. artikuluan eta hurrengoetan arautzen da, bai eta haren erregelamenduzko xedapenetan ere, eta, zehazki, abalak emateko, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren martxoaren 14ko 49/2008 Foru Aginduan.

Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek Nafarroako Gobernuak baimenduta, abalak eta maileguak eman ditzaten ahalbidetzeko, apirilaren 4ko 13/2007 Foru Lege horretan egindako aldaketek, lehenik, abalak emateko indarreko prozedura eta entitate horiek maileguak emateko prozedura eguneratu beharrak, bigarrenik, eta, azkenik, eragiketa mota honen gaineko kontrola areagotzeko komenigarritasunak, aurrekontu egonkortasunaren helburuetan eragina izan baitezakete, aski justifikatzen dute aipatutako entitate publiko horiek abalak eta maileguak emateko behar diren prozedurak onestea.

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak 55. artikuluan eta hurrengoetan arautzen du erregelamendurako ahalmena, eta 59.1 artikuluan ezartzen du prozedurari Nafarroako Gobernuan arlo horretako eskumena duen kontseilariak emanen diola hasiera,

kasu honetan Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak, eta berak izendatu beharko duela prozeduraren organo arduraduna; prozeduraren barnean proiektua eta nahitaezko memoriak eta txostenak egingen dira.

Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen abuztuaren 28ko 134/2015 Foru Dekretuaren 27. artikuluan Ondare Zerbitzuari esleitzen dio, besteak beste, Nafarroako Foru Komunitateari, sozietate eta enpresetako partaide den aldetik, dagozkion eskubideen kudeaketa eta kontrol eginkizuna, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emandako berme eta abalen tramitazioa, kontrola eta jarraipena egitekoa ere.

Horrenbestez, eta Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 59.1 artikulua bidez eta Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen abuztuaren 28ko 134/2015 Foru Dekretuaren 2. artikulua bidez esleitu dizkidaten ahalmenak erabiliz,

AGINDU DUT:

1. Foru dekretu baten proiektua egiteko prozedurari hasiera ematea, Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek abalak eta maileguak emateko beharrezkoa den Nafarroako Gobernuaren baimena lortzeko prozedura arautuko duena.

2.- Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko Aurrekontu Zuzendaritza Nagusiko Ondare Zerbitzua izendatzea foru dekretua egin eta tramitatzeko organo arduraduna izan dadin.

3.- Foru agindu hau igortzea Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Ondare Zerbitzura, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2017ko irailaren 13an.

OGASUNEKO ETA FINANTZA POLITIKAKO KONTSEILARIA

Mikel Aranburu Urtasun